


# Lehenengo ohiturarik ez galtzeko, goazen neguan sagardotegira

Urola aldeko herrietan sagardotegi tikiak zabaltzen hasi dira kuadrila batzu, garajeetan eta



Urrestillako garaje batean koadrilla batek jarri duen sagardotegi koskorra. (Pepe Gil-en argazkia)

## PAKO ARISTI

**E**USKAL Herritik urrun, oso urrun harrapatu ninduen sagardoaren tenporada hasi zen egunak. Paraje ederrak ikusten ari nintzen, argi gehiago eskaintzen zuten zeru-bazterrak, jende ho-beagoa ezagutzen (eta txarragoa) eta nekeak astintzen. Sagardoa hasten zela gogoratu nuen bapatean, eta egonezina sortu zen ene baitan, eta bihotzera abisu bat heldu balitzait bezala, etxerako bidea hartu nuen, agian sagardozale handi bati behin entzun niona gogoratuz: euskalduna, sagardotegian txuleta batekin, zeruan dago. Eta sagardotegira jo nuen berehala, zeruaren bila.

Zen sagardotegira joan erabakitzerakoan sortu zen eztabaida. Batek Astigarraga aldera nahi zuen, Hernani eta Donostia bitartean daudenetako batera.

—Oiarbidek badauzka sagardo ederrak!

Eta Zelaiak ere bai seguruen, eta Barkaiztegi edo Petritegi, baina taldeko batzuk ez ziren konforme, batetik sagardotegi horiek asadore itxura gehiago dutelako, eserita afaltzen den momentutik, eta bestetik sagardo on horiek ez dizkiotelako edozeini ateratzen, konfiantzako adiskide edota botila askoren erosle direnei bakar-bakarrik. Askotan ikusi izan ditugu sagardotegiko nagusiak jendea aldegin zai, adiskide minei barrika onenak irekitzeko. Gainera jende gehiegi ibili ohi da larunbatetan, nahiz eta sagardotegi handiak izan, eta jabeak «mojón» esaten duenean denak jaikitzen dira, arditxoak bezala atzetik, eta kola izugarriak egiten dira trago bat hartzeko. Eta orduan edan behar da, jabeak txotxa aterata duenean, bestela kasu batzuetan tragorik gabe gelditu zintezke, guri lgedoko sagardotegi batean gertatu zaigun bezala, jabea xeble antzekoa delako.

## Aurrez telefonoz deitu behar

Bestetik, zortzi lagun ginen, eta Astigarraga-ko horietara telefonoz deitu behar da lekua gordetzeko, eta beno, gauzak horrela, gehienok ez genuen alde horretara joan nahi, benetako sagardotegi-izakera eta berezko ezaugarriak galtzen ari direlako. Urteetik urtera antz handiagoa duelako jatetxeena.

Makro-sagardotegi horietatik aldentuz, azken urteotan Urola aldeko herri batzutan nagusitu den joera sagardotegi tikiak zabaltzekoa da. Garaje bat izaten da normalki, litro gutxioko barrika bat edo birekin. Barrika horietako sagardoa, Astigarragako enporio horretatik ekartzen dute batzutan; beste batzuetan bertan egindakoa izaten da. Geratzen dira oraindik eta, dolarea bota ez duten baserri batzuk. Kuadrilla batek zabaltzen du gisa honetako sagardotegi tikiak, sagardoa lagun guzian artean ordaintzen delarik. Gero 250 inguruko kuota bat ezartzen dute pertsonako, irabazi handirik ez bada ere enpasa behintzat ateratzeko. Eta normalki taberna baten ondoan eraten dira, jatorduarena tabernan egiten delarik. Urrestillan bertan, 700 biztanleko herri koskorra izanik, badira gisa honetako lau sagardotegi. Asteaz zehar afaltzeko oso ondo datoz sagardotegi tiki hauek, ez baita urruti joan eta berandu etxeratze egokierarik izaten.

Baina larunbata zen, eta guk herritik atera nahi genuen. Lagun batek gainera txaketa berri bat zeukan, eta Tolosa alde horretan erakutsi nahi.

**Sagardo on horiek ez dizkiote edozeini ateratzen, konfiantzako adiskide edota botila askoren erosle direnei bakar-bakarrik. Askotan ikusi izan ditugu sagardotegiko nagusiak jendea aldegin zai, adiskide minei barrika onenak irekitzeko. Gainera jende gehiegi ibili ohi da larunbatetan**

**Baina larunbata zen, eta guk herritik atera nahi genuen. Lagun batek gainera txaketa berri bat zeukan, eta Tolosa alde horretan erakutsi nahi. Berandutzen ari zitzaigun, eta azkenik bada, Ikaztegiatiko sagardotegira joatea erabaki genuen**

Berandutzen ari zitzaigun, eta azkenik bada, Ikaztegiatiko sagardotegira joatea erabaki genuen. Tolosatik zortzi bat kilometrotara dago Ikaztegieta, eta sagardotegia herriko mutur batean, autobiarren zubi izugarria heldu ondoren eskubitara hartzen duen bide buruan. Ikaztegiatiko sagardotegia izango da, lehenengo nolakoak ziren ikusteko gelditzen den bakarrenetakoa, ez bait dirudi aldaketa handirik eduki duenik azken urte edo hamarkada hauetan. Sagardotegia ikuluan dago. Han daude ganaduak, jendearen ondoan, han daude mahai zaharrak, koloka, han daude parrilak, nork bere txuleta egin dezan (Astigarragan gehienguan txuleta ere sagardo-jabeak jartzen du, gero kontuan ondo antzematen den «faborea»), eta han daude barrikak norberak nahi adina eta nahi duenean ireki eta edan dezan. Txandaka, larunbatero hiru barrika ezberdin jartzen da sagardozalearen eskura.

Nahiko tokia bazegoen, eta nere lagunak arras isildu ziren bakaillau tortillak heldu zirenean. Mokadu batzuk sartu ondoren barrika artera joan ginen. Han zebiltzan lazko ezagun batzuek, masajista bat, egunero rossly kaja bat erretzen duen emakumea, Mejiko aldeko doinu alaiak abesten oso abila den txirindulari ohia, eta zekiten euskal abesti bakarria etengabe errepikatzen zuen kuadrila bat.

—Horiek poliziak diruditel! —esan zuen gureta-ko batek.

Ez dakit zer izango ziren, baliteke, ez izatea ere litekeena zen, ez dakit, baina oraindik gure artean poliziekiko dagoen mesfidantza eta beldurraz ohartarazi ninduen. Nahiz guk ez genuen ezagutu, frankismo garaiko sekreta haietaz entzundako istorioek etorri zitzaizkidan bapatean burura.

Ez genuen gaua izorratu nahi, ordea, eta halaxe txuletak parrilera bota genituen.

## Bi sagardo on, hirugarrena motel antzera

Bi barrikatoko sagardoa politta zegoen. Hirugarrenetako motel antzera.

—Hau emakumeen sagardoa dek! —esan zigun ezezagun batek, sagardo motelak gutxiago txispatu eta emakumeek, sagardo bizia agoantatu ez eta motela edan beharko balute bezala. Gauza deigarriak gertatzen dira emakumeekin sagardotegietan. Ikaztegiatiko 525 pezeta kobratzen da, laguneko, sagardo kuota, baina Astigarraga aldeko zenbait lekutan emakumeak erdia ordaintzen du, edo beste era batera, bi emakumeri batena besterik ez zaie kobratzen. Gaur egun, ia gizonezkoaren pare ikusten da emakumea sagardotegian. Batzuei ez zaie emakume ugaltze hau batere gustatu. Oiarbide, adibidez, larunbatetan sagardotegia ixtekoan ibili zen emakume pestea izaten zelako gau horretan.

Intxaurrek hortz tartean gelditzen direnean edaten da sagardo gehiena. Afaria amaitu ondoren ia gelditu gabe aritu ginen barrika batetik bestera, edan eta edan. Kantuan hasi ginen hiruzpalau koadriletako jendea nahasturik, abesti bakarria zekien talde hura kenduta, «badaezpada». Parriletatik haruntzago zelai bat dago, Ikaztegiatiko teilatutara begira dagoen tribuna, eta han egiten genuen txixa, komunak zikin samarrak bait zeuden. Gaua ederra zen, garbia. Eskubitara, autobiarren trafikoak ilargi zuria harrapatu nahi zuela zirudien. Han zeuden izarrak, haiek ere urrun, zeruan, eta gu berriz lurtean, bakoitza bere zeru propioaren bila.

Hamabiak aldera, alai eta bero geundenean, jabeak aldegitiko eskatzera etorri ziren. Azken tragoa jo beharra zegoen.

—Azkena sekula ez esan, gaztia —esan zidan zahar batek— beriz ere etorriko gara hona! Aurtun oso sagardo peligrrosoa dagoela esana zidaten lagunak, eguraldi epelak indarra kendu diola sagardoari eta pattarra bota diotela sagardogileek, alegia, eta jendea sekulako mozkorrak ari dela harrapatzen.

Gu ez geunden oso mozkortuta, hala iruditzen zitzaigun behintzat, baina kanpora atera ginenean izarrak parejaka zeuden, autoek eseak egiten zituzten (direkzioa gaizki edo) eta bertsoka hitz egiten genion elkarri, batez ere bederatzi puntutan oso abilak diren bi lagunak. Sagardotegitik jaitsi eta segituan Zubiaurre taberna dago, eta hor gelditu ginen, Ikaztegiatiko sagardotegira joaten den jende gehienak horixe egiten du, kafea hartu eta kontuak garbitzeko.

## Ikaztegiatiko trikitixa

Sagardotegiko kide guziak hor elkartu ginen berriro, oraingoan kafe kompletoa eta soinua- ren inguruan. Neska bikote zoragarri bat zegoen soinua eta panderoa astintzen, Ana eta Leire, Ikaztegiatikoak biak. Hamazazpi urte bata, hamairu besteak. Larunbatero aritzen dira Zubiaurre tabernan, sagardotegitik datorren jendea eta beste edozein lekutatik tabernara agertzen den jendea alaitzen. Abesti batzutan lagundu genien, duo eginaz eta abar. Txaketa berria mantxatu egin zuen lagunak, kafea erori zitzaion, eta Tolosara agertzeko gogoia joan zitzaion zeharo. Gainontzekook ere ez geneukan grina handirik, eta nola batzuek, ni eta beste bat edo, bikote hartaz maitemindu ginen, bertan eman genuen denborale luzea.

Kristoren mozkorra neukan, eta gutako beste batek ere bai. Egia zen, egia da, itxuraz, aurtengo sagardoaren peligrroso dagoen zurrumurrua, nik beti agoantatu izan bait dut ondo edaria, sagardoa bezala pattar, likore eta espumoso guziak.

Zeruaren bila joan eta ifernura sartzen ari nintzen. Gonbitularria sentitu nuen. Zuri-zuri sentitu neun neure burua, izerdia kopetan behera, eta ia ez zitzaidan Ana eta Leireren kanta hotsik heltzen belarrietara. Han jarraitu nuen ordea, aulkian eseria, mahaiari gogor eutsirik, eta azkenean bikote haren musikak eragina izan zuen nonbait, eta bere kasa aldegin zuen mozkorrak. Tenplatu nintzenean, eta nere lagunak bertso luze eta amaigabeak botatzen ari zirela ikusirik, aulkitik jaiki eta bertso bat bota nuen nik ere. Gau guzian egon nintzen hura pentsatzen, eta bota behar nuen handik aldegin baino lehen.

Hauxe, hain zuzen:

«Poeta naizen ezkeru ez dut zerurik espero patrika beti hutsa daukat eta hankartea bero».